



APPCC PROCEDURAREN ETAPAK

Azterketa eremua definitzea

Azterketa-eremua definitzeko, honako hauek egin behar dira:

- Azterketa produktu edo prozesu jakin batera mugatzea.
- Aintzat hartu beharreko arrisku edo arrisku bizien motak definitu (mikrobiologikoak, kimikoak, fisikoak).
- Aintzat hartu beharreko elikakatearen atala definitzea.

Taldea hautatzea

Azterketa hasi aurretik, Zuzendaritzak langile guztiei eman behar die proposatutako lanaren berri. APPCC azterketan parte hartzen duten enpresa eta langile guztiek azterketaren exekuzioarekin guztiz konprometituta egon behar dute.

APPCC azterketa diziplina anitzeko talde txiki baten bidez egin behar da, eta talde horretan ekoizpen, ontziratze, kalitate, laborategi, etab. arloetako langileek egon behar dute.

Funtsezkoa da taldekideei APPCC sistemako printzipioak eta horien ezarpena erakustea. Hasiera bateko prestakuntza labur, argi eta deskriptiboa nahikoa izan daiteke.

Produktuari buruzko datuak biltzea

APPCC taldearentzat onuragarria da honako hauek modu zabalean berraztertzea, produktuaren informazio osoagoa lortzeko: erabilitako osagaiak, ekoizpen-baldintzak, azken produktuaren berezitasunak eta balizko erabilera-argibideak.

Beharrezko informazioa:

a) Lehengaiak:

- Osagai-moten deskribapena
- Lan-materialen deskribapena
- Azken produktuaren ehunekoa
- Osagaien ezaugarri fisiko-kimikoak
- Mikrobio-edukia
- Erabili aurreko biltegitratze-baldintzak
- Prestatze- eta/edo prozesatze-baldintzak





b) Azken produktua:

- Produktuaren ezaugarri orokorrak
- Ezaugarri fisiko-kimikoak
- Mikrobio-edukia
- Ontziratzea
- Etiketatzeko behar diren zehaztasunak

Produktuaren aurreikusitako erabilera identifikatzea

Interesgarria da identifikatzea zein kontsumitzaile-motak erosiko duen produktua. Kontsumitzailearen baitan daude catering dendak edo errestaurazio kolektiboko dendak.

Halaber, aintzat hartu beharko da produktua egokia den zenbait talde kalteberentzat, hala nola, alergia-dunak, zeliakoak, diabetikoak... Horrela, behar den bezala etiketatuko da edo, bestela, formula aldatu eta produktua publiko zabalago bati begira egokituko da.

Fluxu diagrama egitea

Produktuak jasaten duen eraldatze-prozesua deskribatzean datza, lehengaia sartzen denetik azken kontsumitzaileak erosten duen arte.

Prozesuaren eskema gisa baliagarria da, eta gehitu diren elementu guztiak (ura edo prozesuan laguntzen duten bestelako elementuak) aipatu behar dira.

Fluxu diagrama egiaztatzea

Beharrezkoa da fluxu-diagrama in situ egiten diren jarduerekin erkatzea.

Prozesua zenbait biderrez berrikusi behar da egunean zehar, jarduerako aldi guztietan baliagarria dela ziurtatzeko.

Taldekide guztiek parte hartuko dute fluxu-diagrama egiaztatzeko lanetan. Beste alde batetik, diagrama beharrezkoa denean aldatuko da.

Sor litezkeen arrisku edo arrisku bizi azterketa

Produktuaren segurtasunari dagozkion arrisku edo arrisku bizi zehatzak zerrendatu behar dira. Horretarako, produktuaren osagaiak, prozesua, kontsumitzaileentzako argibideak, etab. oinarritzat hartuko dira.





Behin arrisku edo arrisku bizen zerrenda identifikatuta, arrisku edo arrisku bizi horiek desagerrarazi edo murrizteko behar diren prebentzio-neurrietan jarri behar da arreta.

Arrisku edo arrisku bakoitzerako prozesuaren fase bakoitzean garrantzitsutzat jotako prebentzio-neurriak zerrendatu behar dira.

KKPak zehaztea

APPCC sistemako printzipio honen helburua da kontrola daitekeen puntuaren eta ekoizpen-edo fabrikazio-prozeduraren etapa zehaztea. Halaber, elikagaiaren segurtasunarekin edo kaltegabetasunarekin lotutako arrisku edo arrisku bizia ekidin, desagerrarazi edo maila onargarrira ekarri nahi da.

KPP mota eta kopurua oso aldakorra da, industriaren, ekoizpen-prozesuen eta produktuen arabera.

Bi KKP mota bereizten dira: KKP1 dira arriskua modu eraginkorrean ekiditen dutenak. KKP2 dira, aldiz, arriskua ia guztiz murrizten dutenak, baina indargabetzera iritsi gabe.

Erabakien zuhaitza erabiltzea oso lagungarria da KKPak zehaztu behar direnean.

KKP bakoitzaren muga kritikoak ezartzea

Muga kritikoa da “onargarria eta onargarria ez dena bereizten dituen balioa”.

Parametro baten edo batzuen muga kritikoak ezarri behar dira KKP bakoitzarentzat. Prebentzio-neurriekin edo prozesuen faseekin lotutako parametroek erakuts dezakete KKPa kontrolpean dagoela.

KKPak zaintzeko sistema ezartzea

Zaintza behatze-lanen edo neurrien sekuentzia planifikatua da, KKP jakin bat kontrolpean dagoela erakusteko baliatzen dena. Zaintzarekin batera erregistro fidela ageri da, gerora egiaztatze-lanetan erabiltzeko.

Neurri zuzentzaileen plana ezartzea

Neurri zuzentzaileak dira muga kritikoak gainditzen dituzten desbideratzeak atzematzen direnean egin beharreko aldaketak, balio edo maila onargarrietara itzultzeko.

Neurri zuzentzaile bat sartu eta KKPa kontrolpean dagoenean, interesgarria da sistema berrikustea, akats bera gertatzea ekidite aldera.





Dokumentazioa

APPCC sistema dokumentaturik edukitzea oinarritzkoa da sistemaren ezarpena eraginkorra izateko.

Honako hauek dokumentatuta eta gordeta eduki behar dira:

- Analisis erabilitako datuak
- Txosten eta aktak
- Zaintza-prozedurak
- KKPen identifikazio-erregistroak
- KKPen zaintza-erregistroak
- Ezarritako neurri zuzentzaileak
- Auditoretza-txostenak

Egiaztatzea

APPCC sistema egiaztatu behar da, ikuste aldera ezarritako sistema eraginkorra den. Horretarako, KKPak, horien muga kritiko hautatuak eta ezarritako zaintza-sistemak berrikusi behar dira.

Egiaztatze-prozedurek (APPCC taldeak identifikatutakoak) honako hauek zehaztu behar dituzte: erantzukizuna, maiztasuna, metodoak, prozedurak eta probak.

Berrikustea

Berrikuste-lanen helburua da zehaztea ea ezarritako APPCC plana eraginkorra eta egokia den.

APPCC planaren berrikuste-lanak egin behar dira prozesuan aldaketak gauzatzen direnean edo egiaztatzeen emaitzek hala eskatzen dutenean.

